



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

EZ-OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2016IPLE0004

Eguna: 2016-04-25

Ordua: 19:00 – 20:15

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Jesus M ^a Santos Anabitarte	EAJ-PNV
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHBildu
- Ander Goicoechea Ocariz	EHBildu
- Ainara Vázquez Martínez	EHBildu
- Iker Goñi Salaberria	EHBildu
- M ^a Teresa Bernal Monroy	EHBildu

Bertaratu ez direnak

- Mikel Durán Gonzalo	Euskadiko Sozialistak
-----------------------	-----------------------

Bertaraturako udal teknikariak

- Xabin Olaizola Lasa, udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2016ko martxoaren 19ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 19 de marzo de 2016
Astigarraga - Zarkumendegiko bidegorriko obra: proiektuaren aldatzea eta obraren etenaldia.	2	Obra bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi: modificación del proyecto y suspensión de la obra.
2015eko aurrekontuaren kitapena: onartzen duen Dekretoaren berri	3	Liquidación presupuesto 2015: dar cuenta del Decreto de aprobación.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

ematea.		
2016ko Aurrekontua: alegazioak onartzea eta behin betiko onarpena.	4	Presupuesto 2016: resolución de alegaciones y aprobación definitiva.
Aiotzategi 2, 4. 8 etxebizitza lagatzearen onarpena.	5	Aiotzategi 2, 4. Aprobación cesión de 8 viviendas.
Kiroldegiko handitze lanen 2. faseko obrak esleitzeko kontratazio-espedientearen onarpena.	6	Aprobación del expediente de contratación para la adjudicación de los trabajos de ampliación de la 2ª fase del Polideportivo.
Udal eraikinen garbiketa-zerbitzua esleitzeko kontratazio-espedientearen onarpena.	7	Aprobación del expediente de contratación para la adjudicación del servicio de limpieza de edificios municipales.
Interreg Sudoe programa.	8	Programa Interreg Sudoe
Informazio, galdera eta eskariak.	9	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2016ko martxoaren 19ko aktaren onarpena

Alkateak adierazi du aktaren 13. orrialdean akats bat dagoela, azokak 2 hilabetetik behin egingo direla jaso baita, 2 hilabetez ostiralero egingo zirela esan zenean.

Bestetik, gaztelaniaz ortografi akats asko daudela komentatu du, eta enpresa itzultzaileari eskatu beharko litzaiokeela itzulpenak egiteko garaian arreta handiagoa jartzea.

Dagokion aldaketa egin ondoren, akta aho batez onartu da.

2.- Astigarraga - Zarkumendegiko bidegorriko obra: proiektuaren aldaketa eta obraren etenaldia.

Alkateak Jon zinegotziari eman dio hitza, eta horrek obra eta zerbitzuak batzordeko irizpenaren berri eman du, onartua izan dadin:

1.- Aprobación del acta de 19 de marzo de 2016

El alcalde señala la existencia de un error en la página 13 del acta, dado que se recoge que los mercados se realizarán una vez cada dos meses, cuando se indicó que se realizarían todos los viernes durante 2 meses.

Por otra parte, comenta que hay muchos errores ortográficos en castellano, y que habría que exigir a la empresa traductora que pusiese más atención a la hora de realizar las traducciones.

Realizada la correspondiente modificación, se aprueba el acta por unanimidad.

2.- Obra bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi: modificación del proyecto y suspensión de la obra.

El alcalde le cede la palabra al concejal Jon, el cual presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Lehenengoa.- Kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartzea.

Bigarrena.- Honako akordio hauek hartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetzea:

a.- Proiektu aldatua onartzea.

b.- Aldaketa espedientearen ebazpen proposamena egitea

d.- Aldaketa espedientearen erabakia hartzea.

Hirugarrena.- Aldaketa espedientearen izapidetza bitartean obrak gelditzea, horretarako Zerbitzu Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuak 220 artikuluan dioen akta sinatu behar delarik.

Laugarrena.- Construcciones Moyua eta Gipuzkoako Foru Aldundiari erabakiaren berri ematea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta galdetu du proiektu aldaketak dakarren zenbateko aldaketa nola finantziatuko den zehaztuta dagoen. Alkateak hitzarmenean jaso bezala finantziatuko dela erantzutean, Andoni zinegotziak horretarako beste hitzarmen berri bat sinatu behar den galdetu dio udal idazkariari. Azken horrek hartu du hitza eta azaldu du bere egunean Aldundiarekin sinatutako hitzarmenean proiektu aldaketen finantziaketa aurreikusita dagoela (Aldundiak gainerako obraren portzentaje berean ordaindu behar du), eta ez dela beharrezkoa hitzarmen berririk sinatzea.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

3.- 2015eko aurrekontuaren kitapena: onartzen duen Dekretoaren berri ematea.

Alkateak 2015eko udal-aurrekontuaren kitapenari buruzko dekretuaren berri eman du.

Primero.- Aprobare la incoación del expediente de modificación de contrato.

Segundo.- Delegar en la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes acuerdos:

a.- Aprobación del Proyecto Modificado.

b.- La propuesta de Resolución del expediente de modificación.

c.- El acuerdo del expediente de modificación.

Tercero.- Suspender las obras durante la tramitación del expediente de modificación, debiéndose para ello firmar el acta prevista en el artículo 220 del TRLCSP.

Cuarto.- Dar traslado del acuerdo a Construcciones Moyua y a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El concejal Andoni toma la palabra y pregunta si ya se ha concretado cómo se financiará la modificación del importe que conlleva la modificación del proyecto. Tras la respuesta por parte del alcalde indicando que se financiará tal y como se recoge en el convenio, el concejal Andoni pregunta a la secretaria municipal si se debe firmar otro convenio para ello. Toma la palabra la secretaria e indica que en el convenio suscrito en su día con la Diputación estaba prevista la financiación de las modificaciones del proyecto (la Diputación debe pagar en el mismo porcentaje que el resto de la obra), y que no es necesario firmar otro convenio.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

3.- Liquidación presupuesto 2015: dar cuenta del Decreto de aprobación.

El alcalde informa sobre el decreto de liquidación del presupuesto municipal de 2015.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Jarraian, Andoni zinegotziak hartu du hitza eta gerakinarekin honako hauek egitea proposatu du: Urumea berrin udalak eskuratuko duen 800 m²ko lokala haur eskola bezala egokitzea, herri-bideetan inbertitzea eta brigadarentzako lokala erostea. Eta horiek proposatzearen arrazoiak ere eman ditu: haur eskola txikia gelditu denez, probisionalki lokal bat alokatu behar izan dela, eta haur eskola bezala egokitzeko herrian ezaugarri horietako beste lokal bat ez egotea; edo brigadaren lokalaren kasuan, hainbat lokal erabiltzeaz gain, kiroldegian duten biltegian arriskutsua izatea ikastola eta musika eskolatik gertu dagoelako.

Bukatzeko zinegotziak adierazi du, aurrekontuaren kitapena aurreko legealdiko azken pintzelada dela, eta dekretuan jaso ez arren, kontu-hartzailearen txostenean jaso dela udalak zorra murriztu duela, eta hori azken 4 urteetako lanari esker izan dela.

4.- 2016ko Aurrekontua: alegazioak onartzea eta behin betiko onarpena.

Ogasun batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

a.- Jon Arregi Saguesek aurkeztutako alegazioen ebazpena:

1.1 Planteatuko gehikuntza 43.000 euro bazen ere, batzordean 47.140 eurora aldatu zuen kopuru hori, partidak guztira 88.140 euro izan zitzaizkien eta aplikatzeko den ordenantzan zehaztutakoa betetzeko.- EAJ/PNVren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu da, eta EHBilduren abstentzioarekin, partida 100.000 euroan finkatzeko eskatu baitzuen.

A continuación, toma la palabra el concejal Andoni y propone que el remanente sea utilizado para los siguientes usos: acondicionamiento como escuela infantil del local de 800 m² que adquirirá el ayuntamiento en Urumea Berri, inversión en caminos públicos y compra de un local para la brigada. Y expone también las razones de su propuesta: dado que la escuela infantil se ha quedado pequeña, se ha tenido que alquilar un local provisionalmente, y no existe en la localidad ningún otro local de esas características para poder ser acondicionado como escuela infantil; o en el caso del local de la brigada, además de utilizar diversos locales, el almacén con el que cuentan en el polideportivo resulta peligroso al encontrarse cerca de la ikastola y de la escuela de música.

Para concluir, el concejal señala que la liquidación del presupuesto ha sido la última pincelada de la legislatura, y que aún cuando en el Decreto no se señala nada, en el informe del interventor se recoge la reducción de deuda por parte del ayuntamiento, y que eso se debe al trabajo realizado durante los últimos cuatro años.

4.- Presupuesto 2016: resolución de alegaciones y aprobación definitiva.

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

a.- Resolución de las alegaciones presentadas por Jon Arregi Sagues:

1.1 Si bien el importe de incremento planteado era de 43.000€, en comisión sustituye el importe a 47.140€, para que la partida se dote de 88.140€ y se de cumplimiento a lo determinado en la ordenanza de aplicación.- Se aprueba con los votos a favor de EAJ/PNV, y PSE-EE, y abstención de EHBildu que solicitó fijar la partida en 100.000€.

1.2.- Se aprueba por unanimidad la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1.2 Aho batez onartu da % 0,7 aplikatzea aurrekontu propioaren guztizkoaren gain.

2 Aldaketa onartu da partiden egozpenean.

3 Interreg: 2016rako kreditua 76.231 euroan zehaztu duen batzordearen puntu espezifikoan ebatziko da.

b.- EHBilduk aurkeztutako alegazioen ebazpena:

1.- Anuskako urbanizazioa, 102.000€, aho batez onartu da, baina finantzaketa ogasun-batzordeko lehendakariak egindakoari egokituko zaio.

2.- Martindegi: batzordeak erabaki du 27.000 euroko kreditu-erreserba egitea azpiegituren kargura, eta ez da beharrezkoa izango partida berri bat sortzea.

3.- Perurena.- Kreditu-erreserba egin da 10.000 euroko zenbatekoaz, eta ez da beharrezkoa izango partida berri bat sortzea.

4.- % 0,7aren partida: zuzenketa hau ebatzi da jada 1.2 puntuan.

5.- Batzordean dagokion informazioa eman ondoren, zuzenketa erretiratu da.

6.- Auzokoek zehaztu beharreko inbertsioak: 1.1 puntuan ebatzi da jada.

7.- Udalbiltza: idazkaritzari txostena eman dezala eskatzea erabaki da, 2016ko urtarrilaren 1ean Astigarraga Udalbiltzako kide den edo ez zehazteko.

8.- Sagardun: hurrengo batzordeetan aztertuko da.

9.-Kiroldegia: aho batez onartu da 1.734,29 euroko aurrekontu-gehikuntza

aplicación del 0,7% sobre el total del presupuesto propio.

2 Se aprueba la modificación en la imputación de partidas .

3 Interreg: se resolverá en el punto específico de la comisión que ha concretado el crédito para el 2016 en 76.231€.

b.- Resolución de las alegaciones presentadas por EHBildu:

1.- Urbanización de Anuska 102.000€, se aprueba por unanimidad, pero la financiación se ajustará a la formulada por el presidente de la comisión de hacienda.

2.- Martindegi:: la comisión acuerda hacer una reserva de crédito de 27.000€ con cargo a infraestructuras, no siendo preciso crear nueva partida.

3.- Perurena.- Se ha realizado reserva de crédito por 10.000€, no siendo necesaria la creación de nueva partida.

4.- Partida del 0,7%: esta enmienda ya ha sido resuelta en la 1.2..

5.- Dada la información pertinente en comisión ha sido retirada la enmienda.

6.- Inversiones a determinar por los vecinos: ya ha sido resuelta en el 1.1

7.- Udalbiltza: se acuerda solicitar a la secretaria emita informe determinando si ha fecha 1 de enero 2016 Astigarraga es ó no miembro de Udalbiltza.

8.- Sagardun: se analizará en posteriores comisiones.

9.-Kiroldegia: se aprueba por unanimidad, el incremento propuesto de 1.734,29€.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta urte osoan udal osoko bilkurak hartu behar duen erabaki garrantzitsuena dela adierazi ondoren, komentatu du bere taldeak hasieratik parte hartu duela aurrekontua prestatzen eta hobetzen, eta egindako ekarpenak zeintzuk izan diren adierazi du (berdintasun arloa, alokairu soziala, uholdeak, Merkataritza planak aurreikusitako hiritartze-lanak...). Gaineratu du alegazioa sartu izanaren arrazoia aurreko ogasun batzordean onartutakoa ondo ez izan izana dela.

Bukatzeko, zinegotziak udal gobernu taldeari aurrekontua prestatzen egindako esfortzua eskertu die, eta aurreratu du bere taldearen aurrekontua ez denez (emendakin askok onartu zaizkien arren), abstenitu egingo direla.

Jarraian irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta EAJ-PNV taldeko aldeko 6 botoekin eta EHBildu taldeko 6 abstentzioekin onartu da, eta 2016ko udal aurrekontua zenbateko hauekin onartu:

Udala: 8.798.257,60 €
Astigarraga Lantzen: 223.500,00 €
Orokorra kontsolidatua: 8.811.857,60€

5.- Aiotzategi 2, 4. 8 etxebizitza lagatzearen onarpena.

Ogasun batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

1.- Britac Proyectos SL udalari egiten dio doako lagapena onartzea, hau da, Aiotzategi 2 eta 4 helbidean Babes Ofizialeko 8 etxebizitza eta bakoitzari atxikitako trastaleku eta garajeen doako lagapena onartzea.

2.-Britac egindako lagapena doako izan arren, BEZaren ordainketa, hau da 78.000€, udalak bere gain artea.

Toma la palabra el concejal Andoni y tras señalar que se trata de la decisión más importante que tiene que tomar el pleno del ayuntamiento durante todo el año, comenta que su grupo ha participado desde el inicio en la elaboración y mejora del presupuesto, e indica cuáles han sido las aportaciones realizadas (área de igualdad, alquiler social, inundaciones, obras de urbanización previstas por PERCO...). Añade que la razón para la inclusión de la alegación ha sido el no haber reflejado debidamente lo aprobado en la anterior comisión de hacienda.

Para concluir, el concejal agradece al grupo de gobierno el esfuerzo llevado a cabo en la elaboración del presupuesto, y avanza que al no tratarse del presupuesto de su grupo, se van a abstener, pese a que se han aprobado muchas de sus enmiendas.

A continúan se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba con los 6 votos a favor de EAJ-PNV y las 6 abstenciones de EHBildu, procediéndose a aprobar el presupuesto del 2016 por los siguientes importes:

Ayuntamiento: 8.798.257,60 €
Astigarraga Lantzen: 223.500,00 €
Total consolidado: 8.811.857,60 €

5.- Aiotzategi 2, 4. Aprobación cesión de 8 viviendas.

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

1.- Aprobar la cesión gratuita realizada por Britac Proyectos SL al ayuntamiento, consistente en la cesión gratuita de 8 viviendas de protección oficial y de los trasteros y garajes vinculados a cada una de ellas, sitas en Aiotzategi 2 y 4.

2.- Aún siendo gratuita la cesión de Britac, el pago del IVA, que asciende a 78.000€, correrá a cargo del ayuntamiento.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

3.- Alkateari eskritura eta beharrezko diren gainerako agiri guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

4.- Aipatu ondasuna jabetza erregistroan inskribatzea eta udal ondasun inentarioan sartzea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du udalaren ondarea areagotzea garrantzitsua dela. Jarraian azaldu du etxe horiek aurreko legealdian lortu zirela, eta udalak eskuratu zituen beste etxeak ez bezala (hirigintza aprobetxamendu eta zerga zati baten truke eskuratu ziren), hauek doan lortu direla. Bukatzeko, etxe horien sukaldea hornitzeko lehiaketa eta horiek errentan jartzeko prozesua lehenbailehen abian jartzea eskatu du.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

6.- Kiroldagiko handitze lanen 2. faseko obrak esleitzeko kontratazio-espeditarean onarpena.

Alkateak Jon zinegotzia eman dio hitza eta azken horrek ogasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

1.- Adierazitako kontratazio-espeditarea onartzea 451.846,52 euroko prezioarekin, eta 546.734,29 euroko azken prezioarekin, eta kreditua dagoela egiaztatzen duen ziurtagirian bildutako partidari egotziko zaio kopuru hori.

2.- Lizitazioaren deialdiari ekitea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du kiroldegia berritzeko lanak aurreko legealdian hasi zirela. Gaineratu du bere taldeak irizpenaren alde bozkatuko duela, handitze fase honen bi azpifaseko obrak gauzatzeko aurkeztu baitiote emendakina udal-aurrekontuari.

3.- Facultar al alcalde para la firma de las escrituras y de cuantos documentos sean necesarios.

4.- Inscribir el citado bien en el registro de propiedad e incluirlo en el inventario de bienes municipales.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que es importante incrementar el patrimonio del ayuntamiento. A continuación indica que esas viviendas se obtuvieron en la anterior legislatura, y a diferencia de otras viviendas que adquirió el ayuntamiento (se adquirieron a cambio de aprovechamiento urbanístico y una parte de los impuestos), estas se han obtenido gratis. Para concluir, solicita que se ponga en marcha cuanto antes el concurso para la dotación de las cocinas y el proceso para poner las viviendas en arrendamiento.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

6.- Aprobación del expediente de contratación para la adjudicación de los trabajos de ampliación de la 2ª fase del Polideportivo.

El alcalde le cede la palabra al concejal Jon, el cual presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

1.-.- Aprobar el expediente de contratación precitado con un precio de licitación de 451.846,52€, y un precio final de 546.734,29€. que se imputará a la partida recogida en el certificado de existencia de crédito.

2.- Proceder a la convocatoria de la licitación

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que los trabajos de renovación del polideportivo comenzaron en la pasada legislatura. Añade que su grupo va a votar a favor del dictamen, puesto que han presentado una enmienda al presupuesto municipal para la ejecución de las



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bukatzeko adierazi du obra honekin oraindik kiroledegia handitzeko diagnostikoan jasotako bi azpifase egin gabe geldituko direla, eta oraingoz langileen bulegoak egingo ez direnez, horiek non kokatuko diren galdetu du.

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta erantzun dio oraindik zehaztear dagoela, baina alegia Mundarro elkarteko kideak bulego bakar batean jarriko direla, eta udal langilea udaletxera etorriko dela.

Andoni zinegotziak adierazi du erabaki hori obrak hasi aurretik hartu behar dela, eta Nerea zinegotziak erantzun dio hainbat kokapen aztertzen daudela (masaje-gela, elikagaien gela...), baina langileekin ere aztertu nahi dutela.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

7.- Udal eraikinen garbiketa-zerbitzua esleitzeko kontratazio-espeditarean onarpena.

Ogasun batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

1.- Administrazio Klausulen Orriaren 3. paragrafoaren 16. klausulari (Prezioak eta lan-hitzarmena) gehitzea enpresaren lan-baldintzak aplikatu beharra.

2.- Adierazitako kontratazio-espeditatea onartzea urtean 187.132 euroko lizitazio-prezioarekin, eta urtean 226.430 euroko azken prezioarekin, kreditua dagoela egiaztatzen duen ziurtagirian bildutako partiden zerrendari egotziko zaiolarik kopuru hori.

3.- Lizitazioaren deialdiari ekitea.

obras de dos subfases de esta fase de ampliación.

Para concluir, indica que con esta obra quedarán aún sin realizar dos subfases recogidas en el diagnóstico de ampliación del polideportivo, y dado que por el momento no se van a hacer las oficinas de los empleados, pregunta dónde se ubicarán.

Toma la palabra la concejala Nerea y le contesta que eso está por concretar, pero que a lo mejor los miembros de la asociación Mundarro se ubicarán en una única oficina, y que el trabajador municipal vendrá al ayuntamiento.

El concejal Andoni indica que esa decisión hay que tomarla antes del inicio de las obras, y la concejala Nerea le contesta que están estudiando diversas ubicaciones (sala de masajes, sala de alimentos...), pero que quieren estudiar el tema también con los trabajadores.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

7.- Aprobación del expediente de contratación para la adjudicación del servicio de limpieza de edificios municipales.

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

1.- Añadir a la cláusula 16, 3º párrafo del Pliego de Cláusulas Administrativas: "prezioak eta lan-hitzarmena aplicar las condiciones de trabajo de la empresa".

2.- Aprobar el expediente de contratación precitado con un precio de licitación de 187.132€/año, y un precio final de 226.430€/año, que se imputará a relación de partidas recogidas en el certificado de existencia de crédito.

3- Proceder a la convocatoria de la licitación



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak hartu du hitza eta azaldu du baldintza pleguetan Euskadiko Sozialista taldeak, EHBildu taldeak eta bere taldeak egindako ekarpenak jaso direla. Eta Andoni zinegotziak bere taldeak eta Euskadiko Sozialista taldeak egindako ekarpenen berri eman du (urrunez urrun hobekuntzak puntuagarri izatea eta langileak gaur egun dituzten lan-baldintza berdinekin subrogatzea)

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

8.- Interreg Sudoe programa.

Ogasun batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

1.- Honako kreditu hauek onartzea:

2016. urtea: 76.231€.

Gastu-konpromisoak:

2017: 96.445€

2018: 105.361€

2019: 21.925

2.- Interreg V-B Hego-mendebaldeko Europa (Sudoe) Lankidetzaren Programaren barruan Astigarragarentzat aurkeztutako proiektuari dagokion kontrapartida nazionalaren ziurtapen-gutuna sinatzea.

3.- Alkateari baimena ematea programa honetan bildutako diru-laguntza izapidetzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Alkateak hartu du hitza eta azaldu du laguntza oraindik onartu ez den arren, gastu konpromisoa hartzea eskatu dutela. Eta gaineratu du programa honekin aurreko legealdian uholdeen inguruan hasitako lanarekin jarraitu nahi dela.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du; batetik, programa ez dela obrak egiteko,

Toma la palabra el alcalde y señala que en los pliegos de condiciones se han recogido las aportaciones realizadas por el grupo Socialistas Vascos, EHBildu y su propio grupo. Y el concejal Andoni informa de las aportaciones realizadas por su grupo y por el grupo Socialistas Vascos, esto es, que las mejoras sean puntuables y que los trabajadores se subroguen con las mismas condiciones de trabajo con las que cuentan en la actualidad, respectivamente.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

8.- Programa Interreg Sudoe

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de hacienda:

1.- La aprobación de los siguientes créditos:

Año 2016: 76.231€.

Compromisos de gasto:

2017: 96.445€

2018: 105.361€

2019: 21.925

2.- Firmar la carta de certificación de la contrapartida nacional correspondiente al proyecto presentado para Astigarraga en el marco del Programa de Cooperación Interreg V-B Europa Suroccidental (Sudoe).

3.- Autorizar al alcalde a la firma de cuantos documentos sean necesarios para la tramitación de la subvención contenida en este programa.

Toma la palabra el alcalde y señala que aunque aún no se ha aprobado la ayuda, pero que se ha solicitado que se tome el compromiso de gasto. Y añade que con este programa se quiere dar continuidad al trabajo comenzado en torno a las inundaciones en la anterior legislatura.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

I+D+I proiektua bat garatzeko baizik; bestetik, udalak 225.000 euroko laguntza bat lortu ditzakeela eta laguntza guztiak beti ondo etorriak direla, baina ez duela uste programa horrek Astigarragako beharrak asetzen dituenik, eta URA edo antzerako erakundeentzako hobeto ikusten dutela; eta azkenik, interesagarria iruditu arren eta diagnostiko hidrologikoa ona izan daitekeela pentsa arren, programarekin zalantzak dituztenez, abstenitu egingo direla.

Jarraian irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta EAJ-PNV taldeko aldeko 6 botoekin eta EHBildu taldeko 6 abstentzioekin onartu da.

9.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Herri-galdeketa

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du ez dagoela zalantzarik edukiontzi-sistema irabazi zuela herri-galdeketa, eta orain sistema berria martxan jartzeko lanean hasi beharra dagoela.

Bestetik, bere taldearen harriduraren berri eman du, udal gobernu taldeak prentsan egindako adierazpenetan EHBilkuren hausnarketa kritikatu izanagatik, taldeak oraindik hausnarketarik egin ez duenean.

Nere zinegotziak erantzun dio, gezur asko esan dituztela, 5. edukiontzia errausketa dakarrela aipatu dutela; eta baita, sistema berriarekin langileak kalean geldituko direla.

Horrek bertaratuen artean eztabaida sortu du. Andoni zinegotziak azaldu du sistema berriarekin 3 langile gutxiago behar direla, eta ondorioz, 3 lanpostu suntsituko direla. Zorione zinegotziak esan du Garbitaniak gobernu taldeei hori ez diela adierazi, enpresak subrogatuko baititu. Eta alkateak azaldu du Hernaniko industrialdean hondakinak gaika

por una parte, que el programa no es para realizar obras, sino para desarrollar un proyecto de I+D+I, y, por otra, que el ayuntamiento puede lograr una ayuda de 225.000 euros y que esas ayudas son siempre bienvenidas, pero que no cree que ese programa satisfaga las necesidades de Astigarraga, y que lo ven más apropiado para URA o instituciones similares, y que, por último, aunque parezca interesante y piense que el diagnóstico hidrológico puede ser bueno, al tener algunas dudas con el programa, se van a abstener.

A continúan se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba con los 6 votos a favor de EAJ-PNV y las 6 abstenciones de EHBildu.

9.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Consulta popular

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que no hay duda en que el sistema de contenedores ha resultado vencedor en la consulta popular, y que es hora que comenzar a trabajar para poner el nuevo sistema en marcha.

Por otra parte, manifiesta la extrañeza de su grupo por las críticas lanzadas sobre la reflexión de EHBildu en las declaraciones efectuadas en la prensa por el grupo de gobierno, cuando su grupo no ha realizado aún reflexión alguna.

La concejala Nerea le contesta que han dicho muchas mentiras, que han afirmado que el 5º contenedor trae consigo la incineración y también que con el nuevo sistema habrá trabajadores que serán despedidos.

Eso suscita un debate entre los presentes. El concejal Andoni explica que con el nuevo sistema se necesitan 3 trabajadores menos, y que, por lo tanto, se destruirán 3 puestos de trabajo. La concejala Zorione manifiesta que Garbitania no ha indicado eso al grupo de gobierno, puesto que los subrogará la empresa. Y el alcalde señala que dado que en el polígono



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

bilduko direnez, langile gehiago behar direla.

Bestalde, EHBildu taldeko kideek beraiek esandako gezurra zeintzuk diren galdetu dute, eta gezurretan ibili direla aktan jasoko denez, horiek zeintzuk diren jasotzea ere eskatu dute, eta gobernu taldekoek hasiera batean ez dutenez erantzunik eman, Andoni zinegotziak eskatu du aktan jasotzea ez direla gai izan zer gezur esan dituzten adierazteko.

Nerea zinegotzia beraien iritzia dela erantzun du, eta inork ezin diela esan zer argitaratu dezaketen. Bai zinegotzi horrek, bai Zorione zinegotziak adierazi dute EHBilduk kanpainan hainbat gezur esan dituztela: 5. kontenedorea errausketa dakarrela eta langileak kaleratuko direla. Eta azken zinegotziak manipulazioaz ere hitz egin du. Bestetik, alkateak aurpegiatu die langileen kalerazeei buruzko kartelekin herriko kaleak bete izana, eta Andoni zinegotziak erantzun dio kartel horiek LABek jarri dituela.

Ainara zinegotziak hartu du hitza eta komentatu du bere taldea gezurretan ibili dela pentsatzen badute, hori esan behar zutela eta ez beraiek oraindik egin ez duten hausnarketaz hitz egin.

Nerea zinegotziak erantzun dio, beraien ustetan EHBilduk ez duela kanpaina garbia egin. Adierazpen horrek bi taldeen arteko eztabaida suspertuaz.

Bizilagun batek hartu du hitza, eta lehen sistema aldatu zenean, 3 langile ere kalean gelditu zirela adierazi du. Andoni zinegotziak erantzun dio, ez zela inor udaletxera bertaratu subrogatua izateko, eta bere alderdiak lan postuak sortu edo suntsitzeari buruz ari direla.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta postu horiek nola sortu ziren galdetu du, eta Andoni zinegotziak azaldu dio lan-poltsa bat sortu zela eta horren berri, herriko atari guztietan jarri zen

de Hernani la recogida será selectiva, se necesitarán más trabajadores.

Por otra parte, los miembros del grupo de EHBildu preguntan cuáles son las mentiras que ellos han dicho, y dado que se recogerá en acta que han estado mintiendo, solicitan también que se recoja cuáles son esas mentiras, y que como los miembros del grupo de gobierno no han contestado en primera instancia, el concejal Andoni solicita que conste en acta que no han sido capaces de indicar qué mentiras han dicho.

La concejala Nerea contesta que esa es su opinión, y que nadie puede decirles qué es lo que pueden publicar. Tanto esta última concejala como la concejala Zorione indican que durante la campaña EHBildu ha dicho varias mentiras: que el 5º contenedor trae consigo la incineración y que se despedirán trabajadores. Y la concejala Zorione habla incluso de manipulación. Por otra parte, el alcalde les reprocha haber llenado las calles del pueblo con carteles referentes al despido de los trabajadores, y el concejal Andoni le contesta que los carteles fueron colocados por LAB.

Toma la palabra la concejala Ainara y comenta que si creen que su grupo ha estado mintiendo, era eso lo que tenían que haber manifestado y no hablar de una reflexión que ellos mismos aún no han realizado.

La concejala Nerea le contesta que en su opinión EHBildu no ha hecho una campaña limpia. Esa declaración suscita el debate entre los dos grupos.

Toma la palabra un vecino y señala que cuando se cambió anteriormente el sistema también 3 trabajadores se quedaron en la calle. El concejal Andoni le contesta que nadie se ha presentado en el ayuntamiento para ser subrogado, y que su grupo se está refiriendo a la creación y destrucción de puestos de trabajo.

Toma la palabra la concejala Zorione y pregunta cómo se han creado esos puestos, y el concejal



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

bandoen bidez eman zela.

Zorione zinegotziak adierazi du aurreko legealdi osoan Garbitania enpresaren kudeaketaren inguruan informazioa eduki ez zutela, ez ziotela oposizioari eskua sartzen utzi eta enpresak ez zuela inolako kontrolik eduki, eta Andoni zinegotziak erantzun dio egindako galderei erantzun ziotela, eta enpresaren kontrola Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (Tribunal Vasco de Cuentas) egiten duela.

Zorione zinegotziak gardentasun eza aurpegiratu die, Andoni zinegotziak adieraziz inor ez duela esan gardentasunaren eredu denik; eta zerbaiten susmoa badu, salaketa jartzeko.

Zorione zinegotziak berriro ere gezurrak esan izana aurpegiratu die EHBilduko taldekideei, eta herritarrak langileak kaleratzearekin beldurtu izana. Horrek berriro eztabaida suspertuz, Andoni zinegotziak beraiek ez dituztela etiketak jarri esan baitio, eta atez ateko sistema martxan jarri zenean, beraiek ere gezurrak esan zituztela aurpegiratu, esaterako, higie arazoak egongo zirela, behi ereoen sindromea eragingo zuela ..., baina ez dela horrelakorik gertatu.

b.- A-3 autobus-zerbitzua

Andoni zinegotziak galdetu du Aldundiak bilera data zehaztu duen, eta horrela ez bada, lan-taldearen bileran gelditu bezala ostegunean bilera egin behar dela adierazi du.

Alkateak erantzun dio aipatu bileran ez zela adostu lan-taldearen bilera ostegunean egitea, egun horretan bilera data zehaztea baizik.

Andoni zinegotziak Ramón zinegotziari gaia argitzeko eskatzen dio, eta azken horrek esan du lan-taldeko azken bileran adostu zela, Aldundiak bilerako data adostu ezean,

Andoni le aclara que se creó una bolsa de trabajo y que se informó de ello mediante un bando que se colocó en todos los portales de la localidad.

La concejala Zorione señala que durante toda la legislatura anterior no tuvieron información sobre la gestión de la empresa Garbitania, que no dejaron que la oposición entrase en ello y que la empresa no tuvo ningún control, y el concejal Andoni le contesta que respondieron a las preguntas que les hicieron y que el control de la empresa la llevó a cabo el Tribunal Vasco de Cuentas.

La concejala Zorione les reprocha falta de transparencia, el concejal Andoni indica que nadie ha dicho que fueran ejemplo de transparencia y que si tiene alguna sospecha, interponga una demanda.

La concejala Zorione vuelve a reprocharles a los miembros del grupo EHBildu haber estado mintiendo y haber atemorizado a la ciudadanía con el despido de trabajadores. Eso suscita nuevamente el debate, ya que el concejal Andoni le indica que por su parte no han puesto etiquetas, y les reprocha que cuando se puso en marcha el sistema puerta a puerta también ellos estuvieron mintiendo, por ejemplo diciendo que habría problemas de salud, que provocaría el síndrome de las vacas loca, etc., pero que no ha ocurrido nada de eso.

b.- Línea de autobús A-3

El concejal Andoni pregunta si la Diputación ha concretado la fecha de reunión, y manifiesta que si no lo ha hecho, la reunión tiene que celebrarse el jueves, tal y como se quedó en la reunión del grupo de trabajo.

El alcalde le contesta que en la mencionada reunión no se acordó celebrar la reunión del grupo de trabajo el jueves, sino que concretar la fecha de la misma.

El concejal Andoni solicita al concejal Ramón que aclare el tema, y éste indica que en la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

taldearen bilera apirilaren 28an, 9:30ean, izango zela.

última reunión del grupo de trabajo se acordó, que, en caso de que la Diputación no acordara la fecha de la reunión, el 28 de abril, a las 9:30, se celebraría la reunión del grupo.

c.- Eternal Running

Andoni zinegotziak adierazi du udal-idazkariak komentatu duela ez dakiela hitzarmen berri bat sinatuko den, eta udal gobernu taldeari galdetzen dio sinatzeko asmorik ote dagoen. Bestalde, adierazi du harrigarria dela prentsan adierazi izana ekitaldi honen antolaketa erraza dela, hitzarmen baliogabe bat sinatu zenean.

Alkateak erantzun dio oraindik ez dagoela erabakita hitzarmen berri bat sinatuko den edo ez, eta Nerea zinegotziak adierazi du aurrekontua onartuta dagoenez, hitzarmen berri bat sinatzeko aukera legokeela, baina diru laguntza bat izango dela, eta hitzarmen-proposamena edukitzean udal-idazkariari pasako zaiola, horrek aztertu dezan.

d.- Hezkuntza

Andoni zinegotziak galdetu du herri eskolako zuzendaritza, guraso elkarte eta delegaritzarekin edukitako bileraren berri emango den.

Zorione zinegotziak adierazi du bilera Hezkuntzak Astigarrarekiko duen jarrera ezagutzeko egin zela. Eta gaineratu du, udal aholkulari juridikoak DBHko lurak eskuratzeko koste ekonomikoa zehaztean, horiek eskuratu eta hezkuntzaren esku utzi nahi direla, eta ostegunean egingo den kultura, euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordean bileraren berri emango dela.

e.- margotze-lanak

Andoni zinegotziak adierazi du herrian hainbat zebrabideen margotze-lanak egin berri dituela udalak, eta enpresari esleitutako lanen artean aparkaleku mugatuak margotu ez izana harritu

c.- Eternal Running

El concejal Andoni señala que la secretaria municipal ha comentado que no sabe si se firmará un nuevo convenio, y pregunta al grupo de gobierno si existe intención de firmarlo. Por otra parte, indica que resulta sorprendente que se haya manifestado en la prensa que la organización de ese evento es cosa sencilla, cuando se firmó un convenio nulo.

El alcalde le contesta que no está decidido aún si se firmará o no un nuevo convenio, y la concejala Nerea señala que al estar aprobado el presupuesto, habría ocasión de firmar uno nuevo, pero que se trataría de una ayuda económica, y que cuando se disponga de la propuesta de convenio se le trasladará a la secretaria municipal, a fin de que ella lo estudie.

d.- Educación

El concejal Andoni pregunta si se informará sobre la reunión celebrada con la dirección de la herri eskola, la asociación de padres y madres, y la delegación.

La concejala Zorione señala que la reunión ha servido para conocer cuál es la actitud que tiene Educación respecto a Astigarraga. Y añade que, cuando la asesora jurídica del ayuntamiento concrete el coste económico para la adquisición de los terrenos de ESO, se pretende adquirirlos y dejarlos en manos de Educación, y que se dará cuenta de ello en la comisión de cultura, euskera, educación, juventud y fiestas que se celebrará el jueves.

e.- Trabajos de pintado

El concejal Andoni señala que el ayuntamiento acaba de realizar los trabajos de pintado de los pasos de cebrá de la localidad, y que les ha sorprendido que, entre los trabajos adjudicados



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

diela, ordenantza onartzeko premia handia zegoela argudiatu zelako.

Alkateak erantzun dio lana ez dela esleitu aurrekontua onartu gabe zegoelako; eta Andoni zinegotziak adierazi dio 2015eko aurrekontuan merkataritzarako kontu-sail bat zegoela, eta hori luzatu egin zela, erabilgarria izanik.

Alkateak hartu du berriro hitza eta esleipen hori dekretu bidez egin daitekeela azaldu dio.

a la empresa, no se hayan pintado los aparcamientos limitados, porque se argumentó que era muy necesaria la aprobación de la ordenanza.

El alcalde le contesta que el trabajo no se ha adjudicado porque el presupuesto estaba sin aprobar, y el concejal Andoni le indica que en el presupuesto de 2015 había una partida para el comercio y que se prorrogó, estando, por lo tanto, disponible.

Toma de nuevo la palabra el alcalde y le explica que esa adjudicación puede realizarse mediante decreto.

f.- Stua enpresaren eskaera

Andoni zinegotziak aurreko udal osoko bilkura korapilatsutat jo du, eta adierazi du hilabete pasa arren, ez dela ezer egin Stua gaiarekin, eta birpartzelazio proiektua oraindik ez dela onartu.

Alkateak argitu dio ostiralean hirigintza batzordea egingo dela, eta datorren astean tokiko gobernu batzordea.

f.- Solicitud de la empresa Stua

El concejal Andoni señala que el anterior pleno municipal resultó complicado, y señala que aunque haya pasado un mes, no se ha hecho nada con el tema de Stua, y que aún no se ha aprobado el proyecto de reparcelación.

El alcalde le indica que la comisión de urbanismo se celebrará el viernes, y la junta de gobierno local la semana que viene.

g.- Azoka

Andoni zinegotziak galdetu du; batetik, herrian antolatzen diren azoken inguruko baloraziorik egin den; eta bestetik, zenbait tabernari eta merkatarari egindako kexen inguruan zerbait dakiten.

Alkateak erantzun dio erregistroan ez direla kexarik aurkeztu, eta Andoni zinegotziak adierazi dio erregistrotik at ere kexak egon daitezkeela. Alkateak erantzun dio, kexetatik ere ikasi daitekeela, eta balorazioa hilabetera egingo dela.

g.- Mercado.

El concejal Andoni pregunta, por una parte, si se ha realizado alguna valoración sobre los mercados que se organizan en la localidad, y, por otra, si se sabe algo sobre las quejas interpuesta por algunos bares y comerciantes.

El alcalde le contesta que no se han presentado quejas en el registro, y el concejal Andoni le señala que también puede haber quejas fuera de él. El alcalde le contesta que también se puede aprender de las quejas, y que la valoración se hará dentro de un mes.

h.- Udalbiltzari inguruan udal-idazkariak egin beharreko txosten juridikoa.

h.- Informe jurídico que debe elaborar la secretaria municipal en torno a Udalbiltza.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Andoni zinegotziak adierazi du ogasun batzordean udala Udalbiltzako kide den edo ez zehazteko udal-idazkariari txostena eskatzekotan gelditu zela, eta horren konstantzia gelditzea eskatu du.

Udal-idazkariak aurrekontua onartzeko ogasun batzordeko irizpidean txosten eskaera jaso dela adierazi du, eta egitekotan gelditu da.

El concejal Andoni manifiesta en la comisión de hacienda que quedó en pedir un informe a la secretaria municipal sobre si el ayuntamiento es miembro o no de Udalbiltza, y solicita que quede constancia de ello.

La secretaria municipal señala que ha recibido la solicitud de informe en el dictamen de la comisión de hacienda para la aprobación del presupuesto, y queda en realizarlo.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2016ko apirilaren 25ean.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria